



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

2015eko ABENDUAREN 22an  
EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO  
BILKURAREN AKTA.

ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO  
CELEBRADO EL 22 DE DICIEMBRE DE  
2015.

Olaberrian, 2015eko abenduaren 22an, eguerdiko 12ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira jarduneko Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Mainer Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

En Olaberria, a 22 de diciembre de 2015, siendo las 12:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena, y los concejales Nerea Castaño Irazola, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Mainer Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio e Iñigo Sarasola Aranzasti .

Bertan dago eta fede ematen du Idoia  
Arebalo Benito Idazkari  
Kontuhartzaileak.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-  
Interventora Idoia Arebalo Benito.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

## **AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA**

## **INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO**

Olaberriko Ihurre auzoko urbanizazioa lagatzeko Dokumentua eta Ihurre auzoko zenbait lokal erosteko konpromisoa: Hitzarmenaren onarpena eta Alkatea ahalmentzea hitzarmenaren sinadurarako eta gerora, eskritura publikoan jaso izateko.

Documento de cesión de la urbanización del barrio de Ihurre de Olaberria y compromiso de compra de ciertos locales del barrio de Ihurre: aprobación del documento y habilitar al Alcalde para la firma del mismo y posterior elevación a escritura pública.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Ihurre auzoko urbanizazioa lagatzeko eta Ihurre auzoko zenbait lokal erosteko konpromisoa jasotzen duen Hitzarmena aurkeztu eta azaldu zitzaizen udal-kideei joan zen batzorde informatzailean.

Dagokion espedientean dagoen aipatu Hitzarmena, aldeek hile honetako 28an sinatzea aurreikusten da.

Behar bezala eztabaidatu ondoren, gaia bozkatzen da honako erabaki hau hartuz:

LEHENENGOA: Aho-batez onartzen da Ihurre auzoko urbanizazioa lagatzeko eta Ihurre auzoko zenbait lokal erosteko konpromisoa jasotzen duen Hitzarmena.

BIGARRENA: Aho-batez onartzen da Alkatea ahalmentzea Hitzarmenaren sinadurarako.

BILDU taldekoa den Iñigo Sarasola zinegotziak, bere botoa azaltzeko xedearekin zera aipatzen du: ados daudela baina Ihurre auzoko obrak kudeatzeko garaian garbi eta zentzuz jokatzeko eskatzen dio Udalari.

OHE taldeko zinegotzia den Aritz Arantzegi jaunak, bere botoa azaltzeko xedearekin ondoko aipamen hauek egiten ditu:

- Gai hau ez da inongo batzorde publikotan landu, nahiz eta gaiak horrela izateko garrantzi nahikoa eduki.

Se presentó y expuso a los corporativos en la pasada comisión informativa, el documento de cesión de la urbanización de Ihurre y el compromiso de adquisición de ciertos locales del barrio.

Se prevé que el referido documento, que obra en su correspondiente expediente, lo firmen las partes el día 28 de diciembre del presente.

Tras debatirlo suficientemente, se procede a la votación siendo el acuerdo adoptado el siguiente:

PRIMERO: Se aprueba por unanimidad el Documento de cesión de la urbanización del barrio de Ihurre de Olaberria y compromiso de compra de ciertos locales del barrio de Ihurre.

SEGUNDO: Se acuerda, por unanimidad, facultar al Alcalde para la firma del mismo.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola, con el fin de exponer el sentido de su voto, dice que están a favor pero piden que a la hora de gestionar las obras correspondientes en el barrio de Ihurre el Ayuntamiento actúe limpiamente y con sentido común.

El concejal del grupo OHE Aritz Arantzegi, con el fin de exponer el sentido de su voto, realiza las siguientes consideraciones:

- Este tema no se ha trabajado en ninguna comisión de carácter público, aun teniendo suficiente envergadura para ello.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

- Aprobetxamendua ez da erabili, Legeak honi buruz xedatutakoa ez da aplikatu.
- Hitzarmenean Udalak erosteko jasotzen diren ondasunen balorazio bat eskatzen du.
- No se ha utilizado lo previsto por la Ley con respecto al aprovechamiento.
- Solicita que se haga una valoración de los bienes reflejados en el Convenio a adquirir por el Ayuntamiento.

Alkateak, egindako azken eskaerari erantzuten dio esanez prestatuko dutela eta gaiaren inguruan hitz egiteko aukera egongo dela.

El Alcalde responde a esta petición diciendo que se preparará y que se tendrá oportunidad de hablar de este tema.

**Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura eguerdiko hamabiak eta bost direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 12:05 minutos de la tarde, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**